



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14
20800 ZARAUTZ



Berandu baino lehen

[gure komunitateari mezua]

Pasa den asteburuan, hondartzako futboleko jardunaldian, epaileekiko errespetu falta batzuk ikusi ziren zenbait partidatan. ZKEk eta Kirol Eskolan parte hartzen dugun eskualdeko ikastetxeok komunikatu bat zabaldu dugu horren harira. Horrez gain, Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolatik, **gure komunitateari zuzendutako mezu hau** ere zabaldu nahi genuke.

Asteburuan errespetu falta asko ikusi ziren hondartzako futboleko jardunaldian. Gehienak gurasoek epaileekiko izandako errespeturik gabeko komentarioak izan ziren. Ikasleen arteko liskarrak ere izan ziren, baita guraso batzuek beste taldeko entrenatzaile eta jokalariekiko izandakoak ere.

Eskola-kirola jarduera fisikoa bultzatuz hainbat kirol probatzeko eta kirola egiteko kultura gure ikasleengan zabaltzeko helburua duen programa da. *Jolasaren bidez, harremanak sendotu eta parte-hartzaileen heziketan tresna izatea nahi dugu. Bide horretan, asteburuan izan diren jarrerak kontrako noranzkoan garamatzate.* Halako jarrerarik ez dugu onartzen, eta gogor salatuko ditugu antzeko egoerak. Badakigu, halaber, halako jarrera duten gurasoak gutxiengo direla, eta nahi genuke inguruan dabilzan helduek halakorik ez onartzea eta momentuan esku hartzeko ahalmena izatea. **Errespetuzko jarrera eta balioetan ahaldu eta haurren kirol-jardueretan (eta edozein mailatan) halakorik ez onartzea eskatzen dugu. Halako egoerak eten eta jazarpena jasaten ari den entrenatzaile, ikasle edo epaileari babesa adieraztera animatzen zaituztegu.**

Jarrera desagokiak nondik datozen ere aztertzea da. Urtero, txapelketak aurrera egin eta finalerdiak eta finalak gerturatzen direnean, tentsioa handitu eta jarrera itsusiak nagusitzen dira. Hori ez zaigu kasualitatea iruditzen. Emaizta garrantzia hartzen hasten denean, transmititu nahi ditugun balioak ahaztu eta errespetu faltak agertzen dira. Asteburuz asteburu gizonzkoen eliteko futbolean ikusten ditugun errespetu faltak gure haurrek kopiatu eta erreproduzitzen dituzte: jokalarien arteko jazarpenak, epailearekiko errespetu faltak, kexak, neurritz kanpoko ospakizunak... Futbolean ikusten diren jarrera desagokiak geroz eta eragin handiagoa dute gure haurrengan. Gizonzkoen eliteko futbolak gure gizartean duen presentzia neurrigabea da eta jarrera onartezin asko onartu eta normalizatu ditugu. Gure ikasleek egunero ikusten dute nola gurtzen ditugun aipatutako jarrera horiek dituzten jokalaria. Ikusleen *hooliganismoa* ere bai. **Gaiari serio heltzen hasten ez bagara, gaur egun ditugun arazo larriak atzera bueltarik gabeko arazo bihurtuko zaizkigu.**

Lanean ari gara ikastetxe guztietan, kirol-elkarteetan eta gure Eskola Kirola aurrera eramateko lanean ari diren guztiengan eragiteko. Gure komunitatean izan dezakegu eraginik handiena, eta horixe da testu honen helburua.

Asteburuan baloia behin edo bitan soilik ukitu duten kirolariak ditugu; etxera negarrez joan direnak. Kontu horietan jarri nahi dugu arreta. Taldekide guztiek parte hartzean, gaitasun gutxien dutenei aukera ematean, ikasteko aukera ematean, aurrean ditugun lagunen mailara moldatzean, inor ez zapaltzean, umorez jolastean, irribarreetan... Ez digu ezertarako balio ikasle batek 4 gol sartu izanak ondokoak baloia behin bakarrik ukitu badu. Zertarako nahi dugu irabazi taldekideren bat etxera negarrez joan bada taldeak bera kontuan hartzen ez duela ikusita? Heziketa da



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14
20800 ZARAUTZ



helburua eta ez dugu errespetu faltarik onartuko lehiakortasunaren izenean. Lehiakorra izaten saiatzeak ez du zerikusirik errespetu falta hauekin.

Datorren **larunbateko jardunaldirako, txanda bakoitzaren aurretik, 30 minutu lehenago, talde guztiekin argazkia egingo dugu, talde guztiak elkartuta ERRESPETUA eskatzeko.** Etxean gaia lantzeko eta zuen seme-alabak bertaratzera animatzeko eskatu nahi dizuegu.

Has gaitezen neurriak serio hartzen eta umorez jolasten. Gure ikasleak ikasten ari dira, eta horretarako inguru egokia ematen ez badiegu alferrik ari gara.

Eskerrik asko gaiarekiko kezka eta lanerako prestutasuna adierazi duzuen gurasooi.

Asko zarete. Asko gara.

Hodei Esteban Pertusa
KIROL KOORDINATZAILEA
SALBATORE MITXELENA IKASTOLA